



XXXII. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

EPAIMAHAIAREN AZKEN ERABAKIA

XXXII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko helburuarekin Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaia honako hauek osatu dute:

- Mahaiburua: Mikel Arregi Aranburu, Andoaingo Udaleko Euskararako zinegotzi arduraduna.
- Mahaikideak: Jose Inazio Basterretxea, Itxaro Borda, Aingeru Epaltza, Maite Goñi, Elixabete Larrinaga, Ion Muñoa eta Jon Sarasua.
- Idazkaria: Patxi Baztarrika, Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria.

Epaimahaiak ondorengo azken erabakia hartu du, gehiengoz.

AZKEN ERABAKIA

Epaimahaiak bi erabaki hartu ditu: batetik, RAKSen XXXII. edizioko bi saridunak izendatzea, eta, bestetik, COVID-19aren testuinguru zail honetan kazetaritza eta komunikazioa ere bizitzen ari diren egoera zaila hausnargai hartuta moldaturiko deklarazio publikoa, zeina sari banaketako ekitaldi nagusian emango baita ezagutzera.

1.- 2020KO SARIDUNAK

Epaimahaiak 2020ko urriaren 20an izendatu zituen zortzi finalistak, sari atal bakoitzeko launa, ondorengoak:

“Kazetaritza saria” ataleko lau finalistak.

- Arantxa Arza eta Felix Zubia, Euskadi Irratiko Osasun Etxea irratsaioagatik.
- Miel Anjel Elustondo, Berrian argitaratutako “Tonban ehortzirik” testu sortagatik.
- Euskadi Irratiko Albiste Faktoriaren lantaldea, 2019ko irailetik 2020ko iraila bitartean egindako irratsaioengatik.
- Berria egunkarian “Koronabirusaren azken datuak” atala egin duen lantaldea, aipatutako sekzioagatik.

“Komunikazio saria” ataleko lau finalistak.

- “Egunean behin” jokoa, CodeSyntasek egin.
- “Ene kantak” proiektu komunikatiboa, 2019-2020an emandako saltoagatik.
- Arteman, “Lur eta amets” filmaren komunikazio prozesuagatik.
- Mendiak eta Herriak elkarte, Et Incarnatus Orkestra eta Sorland Komunikazioa, “Urmuga” proiektuaren spotagatik.

Maila bereko baina ezaugarri ezberdinetako bi sarik osatzen dute 2020ko Rikardo Arregi Kazetaritza Saria: *kazetaritza saria* eta *komunikazio saria*. Jada aipatutako zortzi finalisten artean, batzuen eta besteen merezimenduei buruz eta saridun izateko egokieraz iritziak azaldu eta eztabaidan jardun ondoren, honakoak dira epaimahaiak gehiengoz saridun izendatu dituenak:



Kazetaritza saria 2020:

Sariduna: Arantxa Arza eta Felix Zubia, Euskadi Irratiko Osasun Etxea irratsaioagatik.

Arantxa Arza kazetariak eta Felix Zubia medikuak osasun-kontsulta zabaltzen dute igande goizero Euskadi Irratian. Saioak entzuleei kalitatezko zerbitzu publiko eredugarria eskaintzen diela azpimarratu nahi du epaimahaiak, bereziki COVID-19ak mundu zabalean eragindako datu eta iritzi-anabasaren testuinguruan. Zer den alea eta zer lastoa bereizten lagundu duen erreferente informatiboa bilakatu da *Osasun Etxea* irratsaioa. Beraien zeregina gainera ez da koronabirusaren nondik norakoak azaltzera eta argitzera mugatu; izan ere, entzuleek beste edozein gaixotasunaz helarazitako kezka eta zalantzei erantzun diete, beti zehaztasunez, erraz ulertzeko moduko hizkera erabiliz eta gizatasunezko tratu pertsonalizatua lehenetsiz.

Saria: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra.

Komunikazio saria 2020:

Sariduna: “Egunean behin” jokoa, Code Syntax-en eskutik.

Euskaratik eta euskaraz sortutako 80.000tik gora galdera ditu egun datu-basean tribial estiloko joko honek. Haren helburua da euskara sustatzea eta euskal kultura ezagutaraztea. Aplikazioak 100.000 deskargen langa gainditzea lortu du eta horietatik gehienek jokatu izan dute egunero. 2019an 3,5 milioi partida jokatu ziren. Komunikazio-esparrua aldatzera datorren tresna nagusiari (Internet eramangarria duen eskuko ordenagailu-telefonoari) modu irudimentsu eta arrakastatsuan heltzen dion proposamena da. Mugikorrarentzat egina izatean, edozein lekutatik parte har daiteke, gehienez egunean behin eta denbora mugatuan. Joko-jolasaren bitartez euskarazko erabiltzaileen komunitatea eraikitzeke tresna dugu CodeSyntaxek merkaturatu duen APP hau. Azpimarratu behar da taldean jokatzeko aukera ematen duela eta 40.000 talde inguru daudela sartuta jokoan. Hala, dagoeneko komunitate bat bildu da jokoaren inguruan, #eguneanbehin traolarekin sare sozialetan isla duena. Etengabe berritzen doan egitasmo honek, gainera, mugikorrerako aplikazio batek eskain dezakeen aukerak gainditu ditu, erabiltzaileei Youtubez erretransmititutako zuzeneko partidak jokatu eta jarraitzeko aukera emanez.

Saria: 9.000 euro eta Xabier Laka eskultoreak RAKSerako berariaz egindako oroitikurra.

Sariei buruz esatekoak amaitzeko, esker ona azaldu nahi die epaimahaiak aurtengo RAKSera proposamenak bidali dituzten kazetari, komunikatzaile eta herritarrei. Esker ona proposamenak aurkezteagatik. Dozenaka asko izan dira epaimahaiak aztergai izan dituenak: genero eta euskarri ezberdinetakoak, erreportaje bakanak zein sortak, lan solteak nahiz askotariko biltegi eta sekzioak, egile bakarrenak zein taldean egindakoak... Bihoakie denei epaimahaiaren esker ona, eta baita ere beren lanaren balioaren aitormena, euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren munduan ugariak baitira kalitate, bikaintasun, berrikuntza eta eredugarritasun irizpideak betetzen dituzten lanak.



2.- EPAIMAHAIKO KIDEEN ADIERAZPEN EZOHIA

Epaimahaiak ahobatez onartu du **“Gizakiaren eta egiaren laudorioa”** izenburua duen adierazpen publikoa, zeinak COVID-19aren testuinguru gogor eta zailean kazetaritza eta komunikazioa betetzen ari diren funtzioari buruzko hausnarketa jasotzen baitu. RAKS 2020aren Adierazpen Publiko horrekin gogoan hartu nahi izan ditu epaimahaiak COVID-19ak han eta hemen eragindako ondorio gogorrak nozitzen ari diren herritarrak eta gizartea bera, oro har.

Azken Erabaki hau epaimahaikide guztiok sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hogeiko azaroaren hogeita seian.

Mikel Arregi
Mahaiburua

Mahaikideak:

Jose Inazio Basterretxea

Itxaro Borda

Aingeru Epaltza

Maite Goñi

Elixabete Larrinaga

Ion Muñoa

Jon Sarasua

Patxi Baztarrika
Idazkaria

XXXII.
RIKARDO ARÆGI
KAZETARITZA SARIA



XXXII.
RIKARDO
ARÆGI
KAZETARITZA
SARIA

· ADIERAZPENA ·

GIZAKIAREN
ETA EGIAREN
LAUDORIOA



Andoain, 2020ko azaroak 26

Andoain, 2020.11.26

Gizakiaren eta egiaren laudorioa

UNE GAITZAK ETA ZAILAK BIZI DITUGU, baita Kazetari-
tza eta Komunikazioan ere. Oinarritzak eta funtsezkoak
da berriak jasotzea eta zabaltzea; eta kontu jakina da infor-
mazioa ematea eta hartzea dela gizarte aurreratuen berme
sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalaren giltzetako
bat; ez da huskeria bat. Komunikatzeak, gizartean hau eta
hura partekatzen ahalegintzeak, eta norbanakoei elkarki-
de izateko bidea irekitzeak usu du berarekin zailtasuna:
dela trebetasunezkoa, dela teknologikoa, edo dela ideo-
logikoa.

Baina, era-erabat zaildu eta trakestu ditu izurriteak gure
bizimodua eta ekinbideak oro. Ezagunak ez genituen
higiene-eredu berrietan trebatu beharrak, lan-jarduere-
tako aldaketa bortitzak, informazio-iturriekin konfian-
tzazko harremanak eraikitzeak zailtasunak, batzuen
eta besteen ezjakintasunak, interes korporatibo jakin
batzuek, berri-agentzien dirigismo interesatuak, zer-
bitzu sekretuen interbentzionismoak, politikari zen-
baiten obskurantismoak, berriak zabaltzeko mugak
eta ezinak... ez digute, ez, atsedetik eman.

Etxean arazo, auzoan arazo, herrian arazo, aberrian
arazo, munduan arazo... hala izan da beti, eta hala da
gaur ere, baita Kazetaritzan eta Komunikazioan ere.
Gizakia, gizaki denetik, beti arazotan. Baina, horre-
k bizi gaitu.

DEKLARAZIO IRMO ETA ZINEZKOA EGIN GURA DU
EPAIMAHAIK gaur, hemen, zuen aurrean, azaroa-
ren hogeita sei honetan, COVID-19 delako birus
hori muinetaraino sartu zaigula urtebete dugu-
nean.

Esker oneko eta kritiko izan nahi dugu Kazeta-
ritzaren eta Komunikazioaren aurrean. Ez dugu
kolore bakarrean sinesten, ezta zentzu bakarreko
esplikazioetan ere. Konplexua da mundua, kon-
plexua behar du hari zuzendutako begiratuak.
Konplexua da, beraz, kazetariaren jarduna.
Konplexua, komunikazio-ahalegin oro. Erraz-
keriak ez du ezertan laguntzen. Egoera arrunte-
tan nahiz larrizkoetan, duintasunak eta ardu-
rak gidatu behar dute gure jarduna.

Esker oneko izan gura dugu egoera zail hone-
tan informatzen eta komunikatzen jardun
dutenekin. Larrua utzi dute kazetari batzuek
larrialdi honetan, eta ez bakarrik zentzu figu-
ratuan. Bizi izan duguna, bizi duguna, ez da
thriller edo nobela beltza izan. Gaixotu eta hil
egin da jendea: etxeokak, herrikoak, ezezagun-
ak. Eta, halere, kalera irten eta informatu egin
duzue. Gaixotu eta hil egin da jendea: etxeokak,
herrikoak, ezezagunak. Eta, halere, komunita-
tearen funtzionamendua bermatzeko eta elkarren
loturak indartzeko komunikazioa lantzen eta abe-
rasten jardun duzue.

Aupa zuek!

Baina, kritiko, oso-oso kritiko izan gura dugu ka-
zetaritzaren eta komunikazioaren jardunean etxe-
koei, herrikoei eta ezezagunei lagundu ordez, az-
toratzen gaituen gaiaren inguruan lastoa eta zirina
jaurtitzen ibili direnekin. Ez dira izan gutxi langai
hori eskuartean hartu dutenak. Erdizkako egiak, al-
biste faltsuak, gezur borobilak, eta kanpaina orkes-
tratuek arrisku bizian jarri dute gizakiaren eta komu-
nitatearen osasun fisikoa, gogozkoa, eta politikoa. Ez
da amaitu gorotz-oldea, era guztietako konplot infor-
matiboak dabiltza gu denon usainean, nondik eraso
jo. Pandemikoa zaigu desinformazioa bera ere.

Aski da!

**GIZAKIAREN ETA EGIAZKOTASUNAREN ALDE-
KO KAZETARITZA SINESTEN DUGU.** Norbanakoaren
garapenerako eta egia indartzeko komunikazioan sine-
sten dugu. Uste baitugu horrek komunitate justuagoa eta
solidarioagoa eraikitzen lagundu dezakeela.

Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietako 2020. urteko
epaimahaiak gizarte-konpromisoari eusten dien kaze-
taritzaren eta komunikazioaren aldeko urratsak ematera
akuilatu, animatu, gura ditu hala profesionalak nola kon-
sumitzaileak.

Bizi gaitzala kontraesanetan eta zailtasunean beldurrik
gabe hausnartzeak, eta kazetaritzan eta komunikazioan
ildo duina eta justua jorratzeak.

Hala bedi!